

# Hamar mila biztanletik gorako herrietan %7,7ak erabiltzen du euskara kalean


EKBk egindako azterketan agertzen denez, euskaldunen %42ak darabil

**H**amar mila biztanletik gorako herrietan %7,7ak darabil euskara, Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) gaur Durangoko azokan plazaratuko duen Bat soziolinguistika aldizkarian dioenez. Euskararen kaleko erabilpenaren lehenengo azterketa da, eta orain arte ezezagunak ziren datuak ematen dira bertan. Euskaldunen ia erdiak —%42— euskara erabiltzen du kalean.

JOXANJEL ALDAI / DONOSTIA

EKBk egin duen azterketa honetarako, 10.000 biztanle baino gehiagoko herri eta hiriak hartu dituzte kontutan, horietan biltzen bait da Euskal Herri osoko biztanlegoaren ia %70a. Guztira berrogeitazazpi herrian aztertu dute euskararen kaleko erabilpena, eta oraindik interpretazioak egiteko goiz bada ere, hasiera batean behinpein, inork uste baino datu baikorragoak azaldu dira.

**EUSKALDUNEN ERDIAK DARABIL** «Euskal Herriko biztanlegoa bere osotasunean, euskaldun zein erdaldunak, kontutan hartuz, euskararen erabilpena askoz murriztagoa izango zela pentsatzen zen; herri handiotan gainera areago»,



I. MARTIARENA.

**EUSKARAREN KALE** erabilpena neurtzeko biztanlego osoa, euskaldunak zein erdaldunak, kontuan hartu ditu EKBk. Datu horien arabera —eskuineko grafikoan ikus daitezke— erabilpena, besterik kontuan hartu gabe, ez da handia —%7,7koa

bataz beste—, baina uste baino datu handiagoak eman dira. Ezkerreko grafikoan berriz, euskaldun osoen portzentaiak agertzen dira, eta horietan, kale erabilpena neurtzen duten datuetan bezala, Gipuzkoak azaltzen ditu portzentai handienak.

azaldu digu EKBko Idazkaritza Teknikoko partaide den Joxe Jabier Iñigok.

Kalean %7,7ak erabiltzen du euskara, baina Iñigoren eritziz, datu hori baino harrigarriagoa da akaso herri-tako euskaldunei dagokiena. «Azterketak erakusten duenez —azaldu dio EGUNKARIARI Iñigok— euskaldunen oso portzentai altuak erabiltzen du euskara, %42ak. Oraindik ondorioak

ateratzeko goiz bada ere, kopuru altua da hori erdaldunak inguratuta zenbatean gauden hartzen badugu kontutan», esan du EKBko partaideak.

**AZTERKETA OSO FIDAGARRIA** Bat soziolinguistika aldizkarian datorren azterketa honi, argia ikusterako 1990 urtearen ia bukaera etorri bazaio ere, azterketa, iazko

azaroan egin zuten Euskal Kulturaren Batzarrea osatzen duten taldeetako 500 lagun inguruk. Datuak bildu eta publiko egiteko atzerapen horren arrazoi gisa «denak prozesatu eta informatizatzen izandako lana» aipatu digu Joxe Jabier Iñigok. 500 lagun horiek, guztira, 329.860 pertsonen erantzunak jaso zituzten, herri horietan bizi den jendearen %6,4 larengana iritsi bait gara».

## Hizkuntz lurraldetasuna aztergai Bat soziolinguistika aldizkarian

GORANE AGIRRE / BILBO

Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) lurraldetasuna aztertu du Durangoko azokarako kaleratu berri duen Bat soziolinguistika aldizkariaren bigarren alean.

Lurraldetasunaren inguruan Jean A. Laponek 'irtenbide pertsonalak eta lurralde irtenbideak estatu eleantunaren arazoan aurrean' gaia aztertu duen heinean Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegik' Belgikaren kasu zehatza jorratu du. Bestalde, kontzientzia pertsonalak eta ekintza sozialak mintzo da Jose Mari Sanchez Carrion 'Txepetx' elkarriketa batean. Euskeraren erabilaren neurketaren aurre datuak eta Unibertsitatean euskeraren egoeraz azterketa bat ere biltzen ditu plazaratu berria izan den aldizkari honen bigarren aleak.

Bat aldizkariak «euskeraren manipulazio eta monopolizazioaren aurka joatea» du xede. «Gure hizkuntza nazionalak herritar guztiak batzen baditu ere, berreskurapen osoa lortzeko leku irekia izan nahi du: albiste, azterketa, gogoeta eta kritikarako bateragunea», zehaztu du EKBko ordezkarik batek.

Soziolinguistika inguruko jendearen beharrianak asetu nahian

jaio zen aurtengo otsailean Bat aldizkaria. «EKBren barne sortu zen aldizkariak Euskal Herriko bai eta kanpoko ideien eta mugimenduen berri ematea du helburu. Soziolinguistikaren berri bi mailetan ematen saiatzen gara, «teorikoa eta praktikoa eta beste batzutan praktikoa», azaldu du Begoña Etxebarria Bat aldizkariako koordinatzaileak.

**IREKIA ETA ZABALA** Liburuxka formatoko soziolinguistika aldizkaria honek argitarapen irekia izan nahi du, «gatazka honetan jende asko eta ideia diferente ugari bildu nahi ditugu, soziolinguistika munduan murgiltzen den jendearen kezkei erantzun nahi diegu horregatik bertoko zein kanpoko ekarpenetara zabalduak gauden», zehaztu du Etxebarria.

Euskera hutsean egindako aldizkari honek lau hilebetero argia ikusteko asmoa badu ere, oraingo honetan bederatzi hilabete pasatu dira hizkuntz perfilak jorratu zituen lehen alea plazaratu eta bigarrena argitara eman den arte. «Esperientzia faltaren ondorioz ezinezkoa izan zaigu lau hilabetero kaleratzea hasiera batean espero genuen bezala. Dena den, epe hau aurrerantzean betetzeko asmoa



Txillardegik eta Begoña Etxebarria, zuzendari eta koordinatzaileak. EGUNKARIA.

eta konpromezua daukagu soziolinguistikari buruzko beharrianak asetzeko bide egokiena erregulartasun hori betetzea bait da», adierazi du Begoña Etxebarria.

Oraingo honetan 133 orrialdez osatua dagoen aldizkari honetan lau atal nagusi banatzen dira, alde bate-

tik, aldizkariaren ardatza eta oinarria den gaia, bestetik elkarriketa, ondoren zenbait kronika eta azkenik, liburu berrak ematen dute. «Artikulu gehienak oportazioak diren arren ale guztietan elkarriketa bat egiteko asmoa dugu», zehaztu du Bat aldizkariako koordinatzaileak.

## Urkiolaren Aldeko Batzordeak epailea eta Ertzantzaren jarrera salatuko du

GORANE AGIRRE / BILBO

Urkiolako Parke Naturalaren Aldeko Batzordeak Durangoko epailearen eta Ertzantzaren aurka salaketa bana jartzea erabaki du. Lehenengoa, joan den asteartean Atxarteko harrobietan eskegita zeuden eskaladoreen iteera aginduaren aurka, eta bigarrena, Ertzantzak zenbait pertsonari plataformara heltzea debekatu eta «beren borondatearen aurka geldierazteagatik».

Joan den asteartean Durangoko epaileak Labagorriko paretean zeuden bi eskaladorek handik aldegin zezatela agindu zuen, harrobietan burutzen den lana koakzionatzeagatik. «Baina guk ez dugu inor koakzionatzen, koakzioa egoteko beharrezkoa bait da biolentzia eta guk erauzketak galeratzeko gure bizitza arriskutan jarri besterik ez dugu egiten. Horregatik epailearen aurkako inpuignazio bat egitea erabaki dugu», zehaztu du Urkiolako Aldeko Batzordeko ordezkarik batek.

Batzordeak Ertzantzaren aurkako salaketa ere jarriko du, alde batetik, «plataformara joatea debekatu eta bere borondatearen aurka bi eskaladore geldierazi zituztelako nahiz eta plataformatik urrun egon. Ertzantzaren aurkako beste denuntzia bat ere jarriko dugu joan den ostegunean Bizkaiko Eskaladoreen Eskolako bat eta bere laguna atxilotzeagatik», esan du Batzordeko ordezkarik honek.

**LABAGORRIKO PARETEAN ESKEGIRIK** Nahiz eta Durangoko epaileak

joan den asteartean eskaladorei aldegitik agindu eta Ertzantzak Atxarteko harrobien ingurua kontrolpean izan eskaladoreen aldaketa eragotzeko, Urkiolako Parke Naturalaren Aldeko Batzordeko bi kidek egun eskegita jarraitzen dute Durangoko Labagorriko paretean, Atxarteko harrobien behin betiko geldiera aldarrikatzeko.

Urkiolako Parke Naturalaren aldeko ekintzen barne Batzordeko kideek kontzentrazio berri bat burutuko dute datorren igande eguerdiko hamabietan Atxarten. Bestalde, bi harrobietako erauzketa lanek parke naturalean sortzen dituzten kalteak salatzeko, Bizkaiko Goi Mendiketa Eskolako zenbait kidek ekintza ikusgarriak egin dituzte azkenaldian, batez ere Bilboko La Salve eta Rontegi zubietatik eskegitea. Batzorde honen eskakizun nagusia Atxarte eta Mañariako harrobiak geldiaraztea da.